

JESUS, MARTA ETA MARIA

1

Jesus Betaniara
joan zan batean,
jo eban adiskide
batzuen atean.
Martak eta Mariak
Jesus ikustean,
eurekin hartu eben
poztasun betean.

3

“Zer deritxazu, Jauna,
hau al da itxura;
ni hola ikusteak
ez deutsu ardura?
Bidal eizu Maria
behar dan lekura,
ni hemen lanpetuta
bera hor logura”!

5

Gogoan jaso daigun
Jesusen eskola:
gure betetasuna
Beragan dagola.
Lanaren lanez Jesus
ez itzi inola,
sinisten dauanari
on egin daiola.

2

Lagun-giroan Jesus
agurtuta gero,
biak euren lanean
hasi ziran bero.
Maria adi dago
Jesusen bezero,
lanpetutako Martak
ez eban espero.

4

“Ikusten zaitut prixaz
zabiltzala Marta,
arnas-estuka eta
mila zalaparta.
Beharrezkoena bat
bakarrik behar da:
Mariak dau zatirik
onena aparta”.

6

Zerutik jatsitako
Ogi bizi bikain,
guk Zeu behar zaitugu
beste guztien gain.
Adi gaukazuz hemen
Zeuk zer esango zain,
Jesus, Zeu zaitugu ta
Maixu eta Artzain.